

EH BILDU

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

## KONTROL MOZIOA

### Marrutxipin moztutako zuhaitzei buruzkoa

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Garbiñe Alkiza López de Samaniegok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko irailaren 19an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Ekainean Marrutxipiko lotunea egiteko lanak hasi ziren. Eta abuztuan aurretik hainbat ingurumen eragilek eta bizilagunek salatu zutena gertatu zen: lotune berria egiteko markatuta zeuden ehunka zuhaitz moztu egin zituzten.

Aspaldi esan genuen Marrutxipiko lotunea egiteko 542 zuhaitz moztuko zirela. Horietatik 180 zuhaitz Udalaren lursail batean zeuden eta beste 362, aldamenean, Foru Aldundiaren lursail batean.

Horri buruz galdetuta, 2021eko irailean, udal eta foru gobernuburuek komunikabideen bidez adierazi zuten ingurumenean ez zela kalterik izango. Are gehiago, Etzietako parkea eta haren ingurua ez zela ukituko esan zuten. Baina gaur egun, errealitatea beste bat da eta bertatik pasatzen den orok ongi ikus dezake egindako izugarritzko mozketa eta lur mugimendua. Parke bera nola geratu den ere.

Eta hau guztia Larrialdi Klimatikoa bizi dugun garaian, non eta berdeguneak babestu behar diren. Tenperaturek gora egin dutenean eta 2022ko udan azken urteetako

## EH BILDU

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

errekorrak ezagutu ditugunean. Ahaztu gabe, Donostiako Udalaren Ingurumen Sailaren arabera, tenperatura gora egiten ari den honetan, Intxaurrondo izango dela hiriko tenperatura altuenetakoa izango duen auzoetako bat. Hortaz, ingurumen aditu guztiek argi diote artifizializazioa gelditzeko eta berdeguneak babesteko aroan gaudela. Inoiz baino garrantzitsuagoa da, hirian eta auzoetan, berdeguneak eta itzalgune naturalak izatea.

Eta kontuan hartuz, gainera, egin beharreko lotune berriarekin, autoei sarrera emango zaiela Intxaurrondotik hiriaren erdigunera eta horrek, berekin, auto-kopurua igotzea ekarriko duela, bai eta CO2 emisioak handitzea ere. Gaur egun, nazioartean, hiriak bestelako norabide bat hartzen ari dira: autoei sarbidea murriztea eta espazio publikoak eta berdeguneak berreskuratzea.

Eneko Goia alkatearen ustez, jarduketa hori ezinbestekoa zen; hau da, Marrutxipiko lotunea eraikitzeko, Intxaurrondon 500 zuhaitz baino gehiago botatzea «ezinbestekoa» zen.

Honi guztiari buruzko interpelazioa egin genuen Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean: Udal Gobernuak berriro ere mozketak justifikatu zuen, eta beste landaketa bat egiteko asmoa agertu zuen arren, ez zuen inongo xehetasunik eman hari buruz eta agerian utzi zuen, beraz, ez duela ez horretarako konpromiso garbirik ez proiektu zehatzik.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

EH BILDU

l-jentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

- Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Intxaurrondo auzoko gunen batean berdegune, itzalgune eta zuhaitz berri bat sor dezan lehenbailehen, Marrutxipiko lotunearekin eraitsitako parkea eta zuhaitzia ordezkatzeko.

Donostian, 2022ko irailaren 22an

**Garbiñe Alkiza López de Samaniego**  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia